

AUSTRALIAKO ESKALADAREN ORTZADARRA FOR THOUSE ABOUT THE ROC

TESTU ETA ARGAZKIAK



Esti Kerexeta Fernandez
(Bilbao, 1966)

Geologian lizentziatua irakasle lanetan dihardu gaur egun. EMFren Zuzendaritzan eta Goi-mendi Eskolan aritua da ere. Oso pertsona aktiboa da eta horren lekuko dira munduko hainbat leku ezagun: Pirinioak, Alpeak, Dolomitak, Atlas mendiak, Andeak eta Himalaiako bazterrak. Azken urte hauetan, batik bat, har-kaitz eskaladan aritu da: Yosemite, Devi's Tower, Grampians, Arapiles, Blue Mountains, Greziako irlak e.a. Naturarekin zerikusia duten beste kirolak ere gustuko ditu.



1973an Young anaiak beste musikari batzuekin elkartu ziren garaje batean. Australian, 1950. urtetik eskalada kirol bezala ezagutzen bada ere, garai honetan, 7. mailako bideak zabaltzen dira Grampiansen "free climbing" estiloan igotzeko seguru finkoak kokatuz. Orduetik eskalada astiro joan da garatzen. Eskalada gune garrantzitsuenak hego-ekialdean daude, Sydney-Melbourne inguruan. Australian bideen zailtasuna neurtzeko eskala propioa erabiltzen dute eta oso harro daude, ez dute besterik erabili nahi. 1960. urtean, John Ewbankek proposatuta, 3 eta 35 arteko zenbakiak erabiltzen hasi zen eta ez da erraza guk erabiltzen dugun eskala frantsesera ekartzea, gainera, ez gaude harri mota haue-

Alex Tigger Wall horma rapelatzin



Mt Yorkeko kanpalekuan ekaitzaren ostean

tara ohituta eta, gure iritziz ez dago homogeneotasunez erabiltza. Eskalada ez dago oso garatuta, oraindik "carrots" deituriko aseguruak erabiltzen dira, txaparik gabeko torloju buruak, beraz, txapak magnesio poltsan eraman behar dira edo kablea duten fisuretoetako kablea erabili, baina ez da batere gomendagarria, eta horri, "sport climbing" esaten diote.

Eskalada guneetako gidak erostea erraza izateaz gain, ezinbestekoak dira. Leku gehienetan ez genuen beste inor ikusi eta soilik, parabol gehien zeuden sektoreetan topo egin genuen beste kirolari batzuekin. Australiar hauen profila beti antzekoa da: eskalada egiten dute, baina beste kirol batzuekin (surfa, txirrindua...) batera eta, gazteak eta zuriak dira. Aborigen bakarrarekin egin genuen topo, Grampians parkeko langilea, kanpatzeko lekuen mantenuan lanean aritzen dena, esanguratsua oso. Leku guztietan kontuz ibili behar da animalia pozoitsuak, ingurune harritsu hauetan ugariak dira eskorpioiak, armiarna pozoitsuak eta sugeak. Guk eskorpioiekin, Australiako sugedorriarekin, eastern brown snake eta tiger snake sugeekin topo egin genuen. Eremu hauetan narrasti asko ikus daitezke eta beraien habitata ez hondatzeko, guztiz debekatuta dago orain ohitura bihurtu den kaim/harri piloak eraikitzea. Gurean ere neurriren bat hartu beharko da ekosistemak bere horretan mantentzeko.

Zenbait leku esanguratsutan eskalada tradizionala ez praktikatzearen aldeko kartelak daude

Eskaladaren inguruan sortzen diren eztabaida eta gatazken artean deigarriak egin zitzaizkigun bi hauek: Parabol/autoprotekzioaren inguruko auzia da lehenengoa. Australian ere, hasierako eskalada bideak autoprotekzioarekin egiten ziren, eta hori da gaur egun ere bide gehienen estiloa. 80ko hamarkadan europarren lehenengo bisitak hasi ziren eta bide tradizional gogorrenak egiteaz gain, parabolak sartzen hasi ziren Australiako bideen zailtasun mailak gorakada nabarmena izan zuelarik. Ezin aipatu gabe utzi Wolfgang Gullichek lortutako "Punks in the Gym" bide mitikoa, munduko lehendabiziko 8b+ mailako eskalada. Bide honetako 35 metroan 8 parabol besterik ez daude. Kirol



Alex, Antipodetan buruz behera! Cowboys Junky bide ospetsuan

bideetan oso parabol gutxi daude eta hasierakoak beti oso urrutiti beraz, bide hauetan autoprotekzioarako aseguruak ere eraman ohi dira. Gure inguruan eskalada tradizionala ingurunearekiko errespetuarekin lotzen da kirol eskaladarekin alderatuta; Australian, berriz, kontrakoa izan arren (antipodak dira), azalpena dauka, fisureroak leku batean sarritan kokatu eta kentzeak harriaren higatzea dakar eta horrela, zuloak handitu egiten dira eta paraboltekin ez da halakorik gertatzen. Gauzak honela, zenbait leku esanguratsutan eskalada tradizionala ez praktikatzearen aldeko kartelak ikusi genituen, bereziki "Special Protection Areas" deiturikoetan, eremu hauetan soilik kirol eskalada praktikatzea eskatzen da. Gune hauetako harria gehien bat hareharri metamorfizatu da, erraz higatzen dena marruskaduraz. Gure inguru hurbilean, berriz, kareharria da nagusi eta higadura gehien bat disoluzioz izaten da, fisureroek apenas eragiten dutelarik.

Bigarren arazoa, berriz, bertako edo aborigenen kulturaren leku sakratuak babesteko dauden debekuak errespetatu behar direla da. Guk ez dugu kultura aborigenarekiko errespetu handirik ikusi, eskalada bideak ia petroglifoen gainean, parkeetako informazio eta turismo bulegoetan Taiwanen egindako boomerang-ak salgai, e.a. Aurten, Grampians mendikateko eskalada sektore batzuetan debekuak ezarri dira eta bidean dira beste debeku batzuk ere. Bertako eskalatazileak eta eskualde hauetan ibilitako atzerritarrak ere, debekuen kontrako kanpaina indar-

tsua egiten ari dira, bereziki sare sozialetan debekuak lehentasunez tratatuz eta aborigenekiko errespetua zeharka eskatuz.

SEKTOREEN ORTZADARRA

ARAPILES/DJURITE: GORRIA

Amaierarik gabeko lautada idor batean altxatzen den 150 bat metroko kuartzitazko harri multzo ikusgarri bat da. Duela 400 milioi urte masa magmatiko batek askatutako beroak erreka sistema bateko sedimentu izan ziren harriak eraldatu zituen berauek gogortuz (metamorfismoa). Hurrengo milioika urteetan eragile geologikoen inguruko material guztiak higatu dituzte gogorragoak diren hauek mantendu direlarik. Gainera, osagaien artean burdina zegoenez, oxidatu denean bere ezaugarri berezia den kolore gorri hori eman dio. Beste eskalada gune batzuekin alderatuta, eskalada bideetara hurbiltzea, bideak aurkitzea, akanpatzea eta abar oso erraza da. 1000 eskalada bidetik gora, luze bakarrekoak zein 6 luzetako bideak. Gehienak tradizionalak eta gutxi batzuk kirol eskaladakoak. Arapilesetik hiru bat kilometrora Mitle Rock deituriko beste muino interesgarri bat altxatzen da. Geologikoki egitura berdina da, baina txikiagoa izanik goraino heltzea erraza da eta beherako bidea kontu handiz oinez egin daiteke.

Kolore eta forma harrigarriak dituen horma honetan, goi mailako kirol eskaladako bideak daude

GRAMPIANS/GARIWERD: BERDEA

1672 km²ko parke honetan, eukalipto baso artean hareharritzko horma handiak eta txikiagoak aurkitu daitezke, 1300 bidetik gora. Hauetara heltzeko erraztasuna ere anitza da. Watchover eta Wall of China sektoreak, kirol eskalada egiteko luze bateko bideak inguruko herri nagusitik, Halls Gapetik oso gertu. Bundaleer sektorea ere hurbil dago, baina behin basoan sartuta isolaturik sentitzen zara. Bideak luzeagoak eta parabolten bat edo beste ikusten badira ere, bide gehienak autoprotekzioan egitekoak dira. Parkeko ipar-ekialdean Taipan Wall sektorea dago. Horma mitiko honetara eroso heltzen da ondo adierazitako bide batetik. Kolore eta forma harrigarriak dituen horma honetan, goi mailako kirol eskaladako bideak daude. Parabolak urrun daude eta, 4 metrotik gorako zuhaitz adarrak ikusi genituen txapajeetan laguntzeko prestatuak. Beste sektore batzuetara heltzea, Guardhouse eta Flame sektoreetara adibidez, suteengatik edo ibiltari gutxi dabilelako edo bidexkak desagertu direlako ez da horren erraza, gehiago ibili behar baita. 2014tik aurrera parkean kanpatzeko, aurretik eskaera eta ordainketa egin behar dira. Erabakiak azken uanean hartuz gero, kontuan hartu behar da kanpalekueetatik bertatik ezin dela ku-

deaketa egin telefono estaldurarik ez dago eta. Halere, kanpaleku batzuk parkeko mugan bertan daude, baina kanpo aldean eta hauetan, ez da ez eskaerarik ezta ordainketarik egin behar. Hemen ere, kanguru artean gosalduta ahal izango duzu koakaburrien barreen artean eta off road kilometro batzuekin berotu sektoreetara heltzeko (*Plantation campground*, oso aproposa).

NOWRA: BELTZA

Nowra herritik bertatik, oinez hurbil zaitezke eskualde honetako sektore gehienetara (1500 bidetik gora). Soalhaven ibaiaren higadurak eraginda, 2 ertzetan kokatzen dira hareharri gogorrezko labarrak zuhaitz artean eta errekatik oso gertu. Bideak kirol eskaladakoak dira eta bide batzuetan spitak zaharkituegiak daude. Nowra izan zen kirol eskalada kontzeptupean garatutako lehenengo eremua eta eztabaida gogorrek ekarri zituen, baina bertan jaio ziren australiarrek proposatutako lehenengo 8. mailako bideak eta bertakoa zen ere "Punks in the Gym" bide ikonikoa kateatu zuen lehenengo australiarra. Guzti honek helmuga eroso bihurtzen du, jende nahikoa ikusi genuen. Animalientzat ere, noski, oso ingurune atsegina da eta eskalada gunea, koakaburrien, lorenzo, perikitoen, grajen eta abarren oihuen artean garatzen da. Kontuan hartzekoa da "Nowra Climbing" gidaliburuak jasotzen duen oharra: lehenengo puntu finkoa pertikarekin ipintzeko pentsatuta dagoela. Sektore eroso denetariko zailtasunekin dugu Thompson's Point.

Hego ekialdeko kostalde ikusgarria



BLUE MOUNTAINS: URDINA

Atmosfera dauden partikulek eragindako argiaren dispersioaren fenomenoak ematen dio kolorea eta izena Sydneytik ordu batera dagoen eremu basati honi. Milaka metroan zehar, amaierarik gabeko gotorleku baten antzera, horma izugarriak altxatzen dira baso artean. Hasierako europarrak mendikate hauek basoak zeharka ezinak zirela uste zuten, izan ere, 15 urte inguru behar izan zituzten beste aldera heltzeko eta 2 urte bide bat eraikitzeko. Gauzak honela, oraindik asko dira inor heldu ez diren hormak. Besteak, berriz, egundoko jolasleku bihurtu dira eskalada maite dugunontzat. Baina urdina ez da paradisu honetako kolore bakarra, Mt. Yorkeko kanpalekutik gozatzen diren ilunabarrak ahaztezinak dira. Hain zuzen, Mt. York leku egokia da eremu hau ezagutzen hasteko. Kanpalekutik bertatik hainbat sektoretara hurbildu daiteke oinez. Hauen artean kilometro erdira dagoen Bardens Lookout aholkatzen dugu, aurkitzeko erraza ondo ekipatuta dago eta bideen kalitatea beti bermatuta dagoenez ez dugu etengabeko aipamenik egingo. Hortik 10 bat kilometrora, Blackhead herria dago eta, hainbat sektore interesgarrietara hurbiltzeko aukera ematen dizu: Shipley Upper, Medlow Bath, bide gogorrez jositako Centennial Glen, Porter pass besteak beste. Postal eta argazki askotan agertzen den "Three sister" harri multzo ospetsuan eskalada bideen aztarnak ikus daitezke, baina gaur egun

debehatuta dago eskalada harriaren hauskortasunak suposatzen duen arriskuagatik, dena dela higadurak modelatutako konposizioa oso erakargarria izan arren, ez zitzaigun iruditu eskalatzeko atsegina oso leku turistikoa baita eta jendez jositako egoten da. Kilometro erdi urrunduta ez da apenas inor ere ikusten eta, ibilaldi zoragarri bat baino gehiago egin daiteke atseden egunetan. Ibilbi-deak jasotzen dituzten mapak lortzea erraza da, bertan dagoen turismo bulegoan eskatu besterik ez duzu.

Mt. Yorkeko kanpalekutik gozatzen diren ilunabarrak ahaztezinak dira

PERPENDICULAR POINT: ZURIA

Australiako beste bazter mitiko honetan ezin izan genuen eskalatu. Eremu militarra da eta militarrek nahi dutenean bakarrik bisitatu daiteke, gure kasuan soilik asteburuetan (egun batzuk lehenago egiaztatu behar da). Eremu horretako kanpalekuan gaua pasatzeko jende kopurua mugatuta dago. Gu igande arratsaldean joan ginen astelehenean eskalatzeko asmoz eta ezinezkoa zenez, 2-3 orduko bisita oinez egin genuen. Lekua haizetsua da eta bideak baino interes handiagoa du inguruneak berak, itsaslabar ikaragarri bat.

Mt Yorketik ilunabarra





Taipan Walleko bideetan gora grampians

INFORMAZIO OSAGARRIA

Australiak eskaladaz gain, baditu beste hamaika interesgune bertara hurbiltzeko: paisaia zoragarriak, animalia harrigarriak, landare exotikoak, denetariko inguruneak; gu eskalatzera joan gara, baina hori guztia ikusteko aukera izan dugu ere. Gaur egun ditugun tresnekin erraza da etxetik bertatik bidaia antolatzea. Denetariko informazioa aurkitu daiteke sarean, horregatik, gure esperientzian oinarrituta, kontuan izateko datu gutxi batzuk besterik ez ditut aipatuko asmoa ez baita gida oso bat aurkeztea.

BISA. " immi.homeaffairs.gov.au " web orrian aldeztatik ateratzea erraza eta doakoa da.

HEGALDIA. Ohiko bilatzaileetan 800€ baino gutxiago ordainduta, hegaldi onargarri bat aurkitu daiteke (2 eskala, 30 ordu inguru, azaroa-abendua), baina erne ibili, gehienetan eskala bat Txinan egiten da eta derrigorrez bisa atera behar da nahiz eta aireportutik ez irten.

KLIMA. Azaroan egunsentiak nahikoa hotzak dira, 0°C inguru; lumazko jaka eskertzen da eta furgonetaren alokairuarekin eskaintzen den "edredoia" oso arina da.

FURGONETA ALOKATZEA. Enpresa asko daude eta bakoitzaren eskaintza ere ugaria da; guk merkeenetarikoa hartu genuen (30€ eguneko), baina oso eskasa izan da. Eskalada guneetako errepide asko ez daude asfaltaturik eta, horrez gain, aldan gora ozta ozta hartzen zuen 30 km/orduko abiadura. Kontuan hartu hurrengo oharrak:

*Ondo irakurri baldintza guztiak, adibidez: bigarren gidari bat doan eskaintzen badizute, kontuan izan bakarrik lehenengo 10 egunerako dela ondorengoak ordaindu behar direlarik eta hori ez dute aipatzen.

*Sukalderako gasa: hoberena norberak erostea da.

*Autobideetako ordainsaria: 3 modu daude:

a) Norberak alta eman "Linkt" web orrian eta erabilpenaren arabera ordainduko duzu.

b) Alokairuarekin batera ordaindu eta behar beste erabili.

c) Alokatzailera arduratzea ordaintetaz, baina kontuz, erabiltzen duzun bakoitzean ordainsariaz gain, 50AUD kobratuko dizute kudeaketagatik.

*Lehenengo gaua: Sydneyn lurra hartzen baduzu, Kangaroo Valleyn dagoen Bendella picnic arean (2 ordu inguru) wombatez eta kanguruz, inguratutik, zelai zoragarri batean doan kanpatu daiteke.

TELEFONOA. Oso praktikoa izan zen bertako konpainia handienaren (Telstra, aireportuan bertan) aurrez ordaindutako txartela erosi eta horrekin moldatu telefonoetako mapak e.a. erabiltzeko. Eskalada gune askotan ez dugu estaldurarik izan eta satelite bidezko telefonoa aholkatzen da.

GAUAK. "Campermate" aplikazioa ezinbestekoa bihurtu zitzaizgun ordaindu behar ez diren lekuekin asmatzeko. Horrez gain, dutxak, ura, e.a. aurki ditzakezu. Oso erabilgarria da eta mapak deskargaturik eraman ditzakezu.

MATERIALA. 12 espres, 4 dyneema (120 cm), 70 metroko soka, 2 fisurero bilduma eta 2 friend bildumarekin ondo moldatu ginen.

OHARRA: Hau guzti hau, nire bizitzako azken 38 urteetan egin ditudan abentura guztiak bezala, nire bikote-lagun-maisu handiarekin eraman dut aurrera: Alexander Arrizabalaga Fontetxa, Bilbo 1966, mendi eta eskalada gidari profesionala, bereak baitira artikulu honetan agertzen diren argazkiak.

Esti Castle Crag monolitoko Swinning bidean 17

